



## Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna 8 de marzo, Día internacional de las Mujeres

Zuzendari estimatua:

Urtero bezala, Nazio Batuen Erakundeak gogorarazten digu martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aukera egokia dela egindako aurrerapausoei buruz gogoeta egiteko, aldaketa gehiago eskatzeko, eta herri eta komunitateen historian funtsezko eginkizuna izan duten emakume arrunten adorea eta kemena ospatzeko.

“Emakumeak eraldatzen ari den lan-mundu batean: 50-50 planeta baterantz 2030. urterako” aurtengo goiburuak lan-munduan gertatzen ari diren aldaketei buruz gogoeta bat egitera gonbidatzen gaitu, aldaketa horiek berebiziko inplikazioak baitituzte emakumeentzat. Alde batetik, globalizazioak eta iraultza digital eta teknologikoak aukera berriak sortzen dituzte, baina, aldi berean, lanaren ziurgabetasun handiagoak, diru-iturrien ezegonkortasunak, politika fiskal eta komertzial berriek, eta ingurune-inpaktuak eragin erabakigarria dute emakumeen ahalduz ekonomikoan.

Gure gizartea gero eta anitzagoa da kulturaren aldetik; hori dela-eta, alderdi horiek berebiziko garrantzia hartzen dute; izan ere, gehiengoaren kulturatik kanpo dauden emakumeak dira desberdintasuna gehien nozitzen dutenak.

Hori guztia dela-eta, martxoaren 8aren ospakizunaz baliatu nahi dugu aurrean, gure erkidegoan dauden kultura guztiak aintzat hartzeko, generoko inposizioekin kritikoak diren berdintasunezko kulturak eraikitzeko, kultura guztietako emakumeen ekarpenak kontuan hartzeko, eta desberdintasunen berdintasuna bermatuko duten ikastetxeak eraikitzeko. Hezkuntza-komunitateei eskatzen dizuegu *martxoaren 8a* ikastetxeetan *egunero* presente izan dezazuela, Berritzeguneren bitartez zuen esku jarri dugun materialean proposatzen den bezala.

Adeitasunez,

Gasteizen 2017ko otsailaren 28an.

Estimada directora / Estimado director:

Como cada año, la ONU nos recuerda que el 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, es un buen momento para reflexionar acerca de los avances logrados, pedir más cambios y celebrar la valentía y la determinación de mujeres de a pie que han jugado un papel clave en la historia de sus países y comunidades.

El lema de este año “Las mujeres en un mundo laboral en transformación: hacia un planeta 50-50 en 2030”, nos invita a reflexionar acerca de la transformación que se está produciendo en el mundo laboral, con implicaciones significativas para las mujeres. Por un lado, la globalización y la revolución digital y tecnológica crean nuevas oportunidades, al tiempo que la creciente informalidad en el trabajo, la inestabilidad en las fuentes de ingreso, nuevas políticas fiscales y comerciales y el impacto ambiental ejercen un papel decisivo en el empoderamiento económico de las mujeres.

En una sociedad, como la nuestra, cada vez más intercultural, todos estos aspectos cobran una especial relevancia, puesto que son las mujeres de culturas diferentes a la mayoritaria las que sufren más la desigualdad.

Por todo ello, queremos aprovechar este año la celebración del 8 de marzo para que se reconozcan todas las culturas presentes en nuestra comunidad, se construyan culturas igualitarias, críticas con las imposiciones de género, se incluyan las aportaciones de las mujeres de todas las culturas, se construyan centros que garanticen la igualdad de las diferencias. Instamos a las comunidades educativas a que el *8 de marzo* esté presente *cada día* en los centros, tal y como propone el material que se ha dispuesto a vuestra disposición a través del Berritzegune.

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2017.

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Cristina Uriarte Toledo  
Hezkuntza Sailburua  
Consejera de Educación